

Filosofia-lan bat nola idatzi



FILOSOFIA-LAN BAT NOLA IDATZI

**Gratu Bukaerako Lanerako Batzordeak egindako
Gida Praktikoa**

Filosofiako GBlerako Batzordeko kide diren irakasleak:

Arantza Etxeberria (Logika eta Zientziaren Filosofia sailekoa),

Cristina Lasa (Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia sailekoa)

María Jesus Maidagán (Filosofia sailekoa).

II ERANSKINA «Klasikoak nola zitatu», Julián Pacho irakasleak idatzi du.

Euskarazko bertsioa Cristina Lasak egin du eta Arantza Etxeberriak berrikusi.

Dokumentu hau 2011-2012 kurtsoan prestatu zen, Filosofiako irakasle askoren laguntza eta ekarpenekin.

2012ko abenduan Donostian inprimatua

Inpresioa: Fotocopias Zorroaga

Maketazioa: Mila De Aquino

Edizioa: Hezkuntza, Kultura eta Berrikuntza ! Zientzia eta Humanitateak Fakultatea, UPV-EHU

Aurkibidea

Sarrera

- 1) Testu Filosofiko baten irakurketa
- 2) Idazteko jarraibideak
- 3) Argudiatzea
- 4) Idazketa
- 5) Erreferentziak eta zitak: Hitzarmen akademikoak

I. ERANSKINA: Bi eredu: laburra eta tradizionala

II. ERANSKINA: Klasikoak nola zitatu

FILOSOFIA-LAN BAT NOLA IDATZI

Gida praktikoa

Filosofia-lan batek ñabardura anitz izan ditzake, kurtsoaren, mailaren eta gaiaren arabera. Izan ere, filosofiako arlo eta eskola bakoitzak argudiatzeko bere modu propioa azaltzen du maiz. Horretaz gain, xedea ere ez da beti berbera: zenbaitetan, ideien azterketa historikoa eta filosofikoa suertatzen da; beste zenbaitetan, eztabaida batean eman diren ikuspuntuen arteko baten defentsa argudiatua. Gainera, argudio logikoa egin behar bada, hizkuntza teknikoa erabiltzea beharrezkoa izan daiteke. Hori guztia kontuan hartuta, gida praktikoa honen helburua oinarritzko gomendio orokorrak ematea da, Gradu kurtsoetan zein Gradu Bukaerako Lana (GBL) idazterakoan baliagarri izan daitezkeelako esperoan, beti ere irakasleek, beren arlo propioari dagozkion ohar zehatzez osatuko dutelakoan.

Filosofia-lan batek filosofia praktikatzeko aukera ematen du, ikasitakoa azaldu, deskribatu edo errepikatu baino, ikuspegi pertsonaletik hausnartzea ahalbidetzen duelako. Izan ere, idazkiaren funtsa luzatu den galderaren haritik edo jakin nahi den zerbaiti heldurik agertuko da, eta ez luke klasean azaldutako gai baten errepikapen hutsa izan behar. Alabaina, orijinaltasunak iturrien azterketaren ondorioa izan behar du, horiek ezagutu eta horien berri emateko gaitasuna erakutsiz.

Hortaz, hauek dira gida honen xedeak: filosofia testuak irakurtzeko zenbait gomendio proposatzea, lana idazteko eta argudioa behar bezala osatzeko oinarritzko arau batzuk ematea, eta erreferentziak zitzatzeko akordio akademiko ohikoenak zein diren azaltzea.

1. Testu filosofiko baten irakurketa

Filosofia-lan baten oinarrian testu-irakurketa dago; beraz, presarik gabe irakurtzen ikastea komeni da. Filosofia-testuen irakurketa hobetzeko, hona hemen jarrai daitezkeen zenbait pausu:

1. Aurrena, irakurketa azkarra, arina egin, autoreak defendatzen duen tesia, argudio nagusia edo ondorioa aurkitu eta idatziaren egituraz jabetzeko. Testuaren hasiera eta bukaerako pasarteetan arreta jarri, horietan formulatzen delako, askotan, argudio nagusia. Alabaina, hori ez da beti begi bistakoa izaten, ezta modu berdinean azaldu ere eskola filosofikoaren arabera.
2. Ondorioa edo amaierako tesia aurkitutakoan, testua poliki berrirakurri. Hura defendatzeko argudio nagusiak nola lotu edo kateatu diren aztertu. Kontuan izan behin-behineko ondorioak azaltzeko eskaintzen diren arrazoiak.
3. Argudioak aztertu: ea horiekiko adostasunik dagoen; ea arrazoibideari zerbait falta zaion; ea premisak faltsuak edo ez oso konbentzigarriak diren eta zergatik; ea esplizituki esan gabe aurreiritzi inplizituak dauden; ea premisek behar beste sostengatzen duten ondorioa; ea ondorioa bera onargarria den.
4. Liburu oso baten edo testu luze baten irakurketaren kasuan, adibidez, filosofiaren autore klasikoen kasuan, suerta liteke bigarren mailako bibliografia erabili beharra izatea. Horretarako, eskatu irakasleari bere iritzia.
5. Komenigarria izan liteke testuan bertan azaltzen diren erreferentziak bilatu eta aztertzea.

IRAKURKETA

1. Saiatu testua aurre-juzkurik gabe irakurtzen.
2. Seinalatu testuan bertan kontsultatu beharreko erreferentziak, ulertzen ez diren pasarteak eta, orokorrean, aurkitzen diren zailtasunak, geroago haietara itzultzeko.
3. Lerro artean irakurri: zenbait kasutan, esaten ez denak, isilpean adierazten denak sor litzake ikerkuntza-adar berriak.
4. Jatorrizko hizkuntzan irakurri, ahal den guztietan.
5. Testua berrirakurri, oharrak idatzi, zirriborroak egin behar izaten da normalean.

2. Idazteko Jarraibideak

Filosofia-lan bat galdera edo arazo bati erantzuteko saiakera da; beraz, komeni da izenburuak aipamen egitea lanak eskaintzen duen arazo horren erantzunari, birplanteamenduari, edo formulazio berriari.

Lana ideia baten defentsa kritiko eta dokumentatu gisa aurkeztu behar da; bere helburu nagusia ez da sentimendu edo emozio bat partekatzea, ez literatura edo estetikako obra bat sortzea, ezta testu baten azterketa (are gutxiago, laburpena) ere.

Lanak argudioren bat eskaini behar du: ezin du izan iritzi propioen zerrenda bat, ez aztergai diren filosofoen iritzien segida bat ere. Bertan egiten diren baieztapenak defendatu behar dira, horiek arrazoizko edo onargarri egingo dituzten azalpenak emanez.

Lana testu zehatz baten azterketari baldin badagokio, testuari eginiko komentarioak dira garrantzitsuenak, baita jarrera bat defendatzeko erabiliko den argudioa ere. Zitek argudio hori indartzeko edo hobeki azaltzeko balio dute, ez lanari ihes egiteko; garrantzitsuena zitei buruzko ekarpenak dira.

Lanari hasiera emateko modu bat hauxe da: lehenengo pasartetik bertatik zein jarrera hartuko den, zein ikuspuntutatik argudiatuko den —agian hori nola egingo den— azaltzea. Lehenengo pasarte horrek erlazio zuzena izan beharko luke izenburuarekin. Behar bada, lehenengo pasarte horren idaztea komeni da amaierako uztea.

Lehenengo azalpena eman ondoren, beste paragrafo bati ekin behar zaio. Arau gisa, paragrafo bakoitzak ideia bakar bat edo beraren defentsarako ekarpen bakar bat izan beharko luke. Horrek lagun dezake ideiak ordenatu eta argudioaren egitura mantentzen. Paragrafoak ongi bereizita egon behar dute, koskatze edo banatze-lerroak erabiliz.

Askotan, idazten hasi aurretik lagungarria izaten da lanaren zirriborro batean ideia nagusien zerrenda egitea, erabili nahi diren moduan ordenatzen laguntzeko eta horiek elkarren artean nola

artikulatuko diren lantzeko. Agian garrantzitsu edo esanguratsuak diren zita multzo bat ere batu daiteke, ziten eta ideien arteko erlazioak azpimarratuz, aurrerago landu ahal izateko.

Azken paragrafoak laburtu beharko lituzke, oso modu kondentsatuan, argudioa eta ondorioak.

IDAZKETA

1. Abiapuntua: galdera bat, kontzeptu konplexu bat, proposamen desberdinen arteko erlazio posible bat, etab.; hau da, ez dakigun edo ongi ulertzen ez den zerbait, hipotesi esplikatzaile bat, etab., azterketan ez bezala, horretan dakiguna erakutsi behar baita.
2. Testu baten azterketa baldin bada, horrek ezin du izan ez laburpen bat, ez ziten segida hutsa ere: zitak interpretatu egin behar dira proposamenaren arabera, argudiatzearen baitan hartuko duten esanahiaren arabera eta, ahal den guztietan, horien erreferentzia egin hitz propioak erabiliz.
3. Lana atalka eta pasarteka egituratu, azpiatal bakoitza ideia edo ildo propio bati jarrai dakioken.
4. Lanaren zirriborroa/aurkibideak lagun lezake lana idazteko garaian, baina «Sarrera» edo «Aurkezpena» bukaeran idaztea komeni da.
5. Ez bota ezer: ordenagailuak aukera aparta eskaintzen du horretarako, artxiboak gorde baitaitezke izen desberdinak erabiliz, egindako zuzenketak gordez. Horrek ahalbidetzen du errekuaratzea, behar izanez gero, hasierako intuizioak.

3. Argudiatzea

Lana idatzi ahala, agian, irtenbideak eman beharrean arazoak pilatzen ari direlako inpresioa sortu liteke. Azken batean, lanek ez dute zertan emanik ondorio zorrotz eta berritzailerik; hausnarketa filosofikoa ez da erraza eta, normalean, ez dira behin betiko erantzunik ematen, arazoaren beraren formulazio berriak baizik. Lanak aurkeztu beharko luke gai bati heltzeko saiakera bat, edo eztabaidan dagoen punturik garrantzitsuena. Norberaren argudioak eta besteen argudioen azterketa kritikoak behar dira.

Lanaren tesi nagusia edo ondorioa defendatu ahal izateko, argudioak ongi kateatu eta elkarri sostengua eman diezaiotela saiatu behar da. Argudio-hari koherente bat lortzeko, zenbait kasutan komenigarria izaten da honako eragiketetako bat edo batzuk burutzea: ideiak edo argudio-taldeak birbildu; gure tesia indartu dezaketen eta aurretik kontuan hartu ez ditugun beste zenbait argudio gehitu; ezabatu hasiera batean ezinbestekotzat jo ditugun horiek eta beharrezkoak ez direnak; idatzia berrordenatu.

ARGUDIATZEA

1. Lanak aurkeztu behar du, hasieratik bertatik, xede bat, galdera edo hipotesi bat. Behar diren pausoak eman ahal izateko baliagarria izan daiteke erreferentzia-testu bat hartzea, hau da, pausu horiek ongi artikulaturik dituen testu labur bat eredu gisa hartzea.
2. Kontrako argudioak ez saihetsi, onest aurkeztea komeni da.
3. Ez da irtenbide edo proposamen berritzailerik aurkeztu behar derrigorrez. Arazoa konplexua denean, komeni da erakustea zein puntutan eman den aurrera pausu bat, edo zein modalitate aurkitu den arazoaren formulaziorako.

4. Idazketa

Azken idatzia prestatzean, kontu handiz erreparatu behar zaie puntuazioari, ortografiari eta zuzentasun sintaktikoari. Horiek denak behar bezala ez badaude, argudioa ahuldu edota irakurketa zaildu egin daiteke. Puntuazio zuzenak eta idazketa onak laguntzen dute testua irakurtzen.

Lana lehenengo pertsonan idatz daiteke, beti ere handinahikeriak saihestuz; hori dela eta, hobe da modu inpertsonala erabiltzea. Laburdura informalen kasuan, komeni da forma osoak erabiltzea.

Idazketa garrantzitsua da; izan ere, ongi idazteak, beste diziplinetan bezalaxe, filosofian ere eragina du. Saiatu behar da argi idazten, modu natural eta dotorean.

Testuaren zuzenketak egiteko, ez dira nahikoa testu-prozesadoreen ortografia-zuzentzaileak. Lana aurkeztu baino lehen, behin eta berriz errebisatu behar da, letra-tamaina eta lerroen arteko espazio egokiak aukeratuz. Eta ez ahaztu orrialdeak zenbatzea eta sinatzea.

IDAZKETA

1. Modu inpertsonalean idatzi, hau da, hirugarren pertsonan. Aukeraketa egin dela adierazteko lehenengo pertsona erabiltzen bada, singularrean izan dadila.
2. Ahal dela, ez erabili irakurketa zailtzen duten baliabide erretorikoak, hala-hola parentesiak, menpeko esakune konplexuak, adjetibazio handiusteak.
3. Irakurleari lana errazteko, erabili lokuzio ilatibo egokiak pasarte bakoitzaren amaieran eta hurrengoaren hasieran.
4. Erabili lokailuak eta sinonimoak testua arintzeko.

5. Erreferentziak eta zitak: hitzarmen akademikoak

Filosofia-lan bat idazterakoan, badira kontuan hartu beharreko zenbait hitzarmen eta arau akademiko. Hori ez da kapritxo hutsa; izan ere, testua irakurri behar duenak jakin behar du nork hitz egiten duen, eta horretarako idazlearen ahots propioa eta beste autoreena ongi bereizi behar dira. Hori dela eta, zita laburrak beti idatziko dira testuan bertan, komatxo artean; zita luzeak, berriz, aparteko pasarteetan eta koskatuak, komatxoak erabili gabe.

Beti idatzi behar dira erreferentzien orrialdeak beste testu bat zitzatuz edo aipatzen denean. Lanaren amaieran, zitatzen diren autore eta obra guztien zerrenda bibliografikoa erantsi behar da.

Testuan ematen diren erreferentzia eta zitak, baita amaierako bibliografia zerrenda ere, modu desberdinez egin daitezke, eskolaren araberrako hitzarmenak baitaude. Garrantzitsuena koherentzia gordetzea da. Zein hitzarmen jarraituko den aukeratu baino lehen, iturri desberdinak kontsulta daitezke. Orokorrean, idazlearen esku geratzen da aukeraketa, beti ere modu sendoan erabiltzekotan. Erreferentzia bibliografikoek zitzatuz diren testuak bilatzeko behar beste informazioa eman behar dute.

Oso garrantzitsua da ez kopiatzea edo ez egokitzea beste testu bat hori aipatu gabe. Kontuan izan besteren testuak, norberarenak balira bezala parafraseatzea, plagiotzat hartzen dela; aitzitik, iturri bibliografikoak modu egokian erabiltzea berez da meritu bat. Norberaren lanak, zenbat eta sostengu gehiago izan beste lan akademikoetan, orduan eta harrera hobea jasoko du, beraren interesa handiagoa izango da.

Horretarako, testuan bertan nola zitzatuko den (oin oharrak edo amaierako oharrak) eta bibliografia nola osatuko den adierazten duen sistema bat jarraitu beharko da.

HITZARMEN AKADEMIKOAK

1. Barne koherentzia errespetatu eta beti modu berean zitzatu.
2. Zitzak: laburrak direnean (gehienez, hiru lerro) testuan bertan eta komatxo artean; luzeagoak baldin badira, aparteko pasarteetan idatzi, koskatuak eta puntu bat gutxiagoko tamainan.
3. Bibliografia: amaieran, lanean zehar erabili eta zitzatu diren iturri guztiak bilduko dituen zerrenda bat egin, alfabetikoki ordenatua.
4. Zenbait kasutan, irakasleek eska lezakete iturriak bereiztea: funtsezko iturriak edo lehen mailakoak, eta bigarren mailako iturriak.
5. Internet bidezko iturriak erabiliz gero, URL osoa idatzi eta kontsulta egin deneko data eman.

I. ERANSKINA: Bi eredu

Hemen azaltzen dira, labur, testuan bertan erreferentziak emateko eta amaierako bibliografia idazteko ohiko bi eredu desberdin.

a) Lehen eredua, laburra, autore/urtea aipatzeari dagokio. Sistema laburtu hori gehiago erabili izan da Zientzietan Humanitateetan baino; izan ere, Humanitateetan eredu «tradizionala» izenekoaren aldaerak erabili ohi dira, baina arloen arteko desberdintasun hori desagertzen ari da egungo filosofia-aldizkarietan. Hori ziurtatzeko, komeni da ikasgai zehatzei dagozkien aldizkaririk ezagunenei erreparatzea.

b) Bigarren eredua, tradizionala, autore/obraren izenburua aipatzeari dagokio. Horiek, normalean, oin ohar edo testu amaierako ohar baten bidez adierazten dira. Bi kasuetan, pasarte zehatz bati egiten badio erreferentzia, edo zita bat baldin bada, orrialdeak zehaztu behar dira.

Hemen azalduko diren bi ereduak, laburra eta tradizionala, dauden modalitate askotariko bi aukera baino ez dira. Hortaz, garrantzitsuena da erabilera koherentea egitea: bat hautatu eta horri sendo eustea.

Egun badira testuetako erreferentziak sortzeko prozesua eta amaierako bibliografiaren osaketa automatizatu egiten duten informatika-programak. Horietako batek, Zotero-k, (<http://www.zotero.org>), dohain eskaintzen ditu aldizkari askotariko ia bi mila estilo zehatz. Halaber, asko erabiltzen ari dira EndNote, Refworks, edo Reference Manager (EHUko liburutegiak hiruretako sarbidea eskaintzen du, ikus web orrialdean). Sistema horiek erabiltzen ikasteko denbora behar da baina, bestalde, programa horiek Graduan zehar irakurritako liburuak eta artikulak bertan gordetzea ahalbidetzen dute. Horrelako sistema bat erabili ahal izatea oso komenigarria izan daiteke zenbait ikaslerentzat.

a) Eredu laburra

Sistema honetan, bibliografian aipatzen diren iturriei erreferentzia eginez, autorearen abizena eta argitaratze-data azaltzen dira zitetan.

Erreferentziak eta zitak, testuan

Eredu laburrean, zitak testuan bertan adierazten dira, autorearen eta argitaratze-urtea parentesi artean idatziz. Kontuan hartu amaierako bibliografian agertzen diren bezalaxe azaldu behar dutela testuan. Ikus adibide desberdinak **A1 Taulan**

Amaierako bibliografia

«Erreferentziak» edo «Bibliografia» izeneko atalean testuan zehar aipatu diren iturriak bakarrik idatziko dira. Ikus adibide zehatzak **A2 Taulan**

Gerta liteke adibideotan agertzen ez den kasuren bat suertatzea (doktorego-tesiak, agiri legalak, eskuizkribu ez argitaratuak, etab.). Horrelakoetan bilatu behar da aukeraturiko estiloarekin koherente izan daitekeen zitzeko moduren bat.

b) Eredu tradizionala

Sistema honetan, oin ohar edo dokumentu amaierako oharretan aipatzen dira autorearen, obraren izenburua eta orrialdeak. Kasu honetan, amaierako bibliografia ere azaldu behar da, nahiz eta errepikatu oin oharretan emandako informazioa.

Erreferentziak eta zitak, testuan

Iturri bibliografikoak aipatzen dira oin oharren bidez. Salbuespena izan daiteke testu bakarra zititzen denean. Kasu horretan nahikoa izaten da autorearen, obra eta orrialdea parentesi artean adieraztea. Ikus **B1 Taula**.

Amaierako bibliografia

Bibliografia, beste ereduaren bezalaxe idatz daiteke, hau da, erabilitako iturriak ordena alfabetikoz emanez. Sistema honetan maiz suertatzen da erreferentziak ordena desberdinean egitea. Ikus adibideak **B2 Taulan**.

ERREFERENTZIAK ETA ZITAK, TESTUAN

a) Eredu laburra

Adibidez: Autore bat

Wittgenstein-en ustez (1953), hitzen esanahia beren erabileran datza.

Hortaz, hitzen esanahia beren erabileran datza (Wittgenstein 1953).

Adibidez: Bi autore (biak aipatzen dira):

Arsuaga eta Martínez (1998) ari dira lehen gizakiak ikertzen.

Lehen gizakiei buruzko datu berriak daude (Arsuaga eta Martínez 1998).

Adibidez: Autore askotarikoak

Normalean, lehenengo autoreak aipatzen da eta, jarraian, «et al.»*, normal idatzita, puntua amaieran, eta ondoren, urtea:

Azurmendik et al. (2004) gida garrantzitsua eskaintzen du...

Filosofia euskaraz emateko eskuliburu bat kontsultatu zen (Azurmendi et al. 2004).

Adibidez: lan klasikoak

Obra baten argitaratze-data zehaztea ezinezkoa denean, testu klasikoekin suertatzen den moduan, hiru aukera izan daitezke:

- a) Nazioarteko komunitate zientifikoak onartutako zitzatzeko modu estandarra izatea. Hori Antzinako eta Erdi Aroko filosofia-testu gehienek kasuan gertatzen da. Horrelakoetan, erabilitako edizioak ez dira bibliografian aipatzen.
- b) Nazioarteko komunitate zientifikoak onartutako edizio kritiko estandarrak izatea. Hori suertatzen da autore moderno gehienek kasuan. Edizio horiek bibliografian aipatu behar dira.
- c) Ezinbesteko erreferentzia duen edizio kritiko onarturik ez izatea,

* «et al.» laburdura latinetik dator, «et alii»: eta beste.

edizio kritikorik ez dagoelako, edota edizio bat baino gehiago dagoelako.

Ikus zehaztasun gehiago: II. ERANSKINA

b) Eredutradizionala

Oin ohar edo amaierako ohar baten bidez zitatzen da:

- Autore bakar baten obra bati buruzko lana: nahikoa da autorearen obra eta orrialdea aipatzea.
- Autore bat baino gehiago edo obra bat baino gehiagori buruzko lana: erreferentziak oin oharretan adierazten dira.

Oharretan honako hauek adierazi behar dira: abizenak, izenaren lehen letra, *izenburua letra etzanetan*, edizioa non egin den, argitaletxea, urtea eta orrialde zenbakiak. Bereizita adieraziko dira zer diren: liburuak, artikulak edo liburuaren atalak, beste sisteman bezala.

Aurretik zitatutako obra bat honela aipatzen da: autorearen abizena eta, jarraian, *op. cit.*, eta orrialdeak. Autorearen obra bat baino gehiago zitatzen baldin bada, titulua laburtuko da eta, jarraian, *op. cit.*, eta orrialdeak.

A2. ADIBIDEAK: eredu laburreko bibliografia

LIBURUAK:

Autore(ar)en abizena, izen(ar)en lehen letra, (argitaratze-data) *obraren izenburua letra etzanetan*, argitaratze-hiria: argitaletxea, itzultzailea.

Aristoteles (1978) *Acerca del Alma*, Madrid: Gredos, itzul. T. Calvo Martínez.

Sullivan, R. J. (1989) *Kant's Moral Theory*, Cambridge: Cambridge University Press.

Arsuaga J. L., Martínez I. (1998) *La especie elegida: la larga marcha de la evolución humana*, Madrid: Temas de Hoy.

Azurmendi Otamendi J., Bengoetxea Cousillas, J.B., Soto Nolasko I. eta Garmendia Mujika J. edit.. (2004) *Filosofiako Gida. Filosofian aritzeko oinarriak*, Bilbo: UEU Udako Euskal Unibertsitatea.

ALDIZKARIETAKO ARTIKULUAK

Autore(ar)en abizena, izen(ar)en lehen letra, (argitaratze-data) «Artikuluaren izenburua komatxo artean», *Aldizkaria letra etzanetan*, alea (zenb.): orrialdeak.

Ginsborg, H. (2003) «Aesthetic Judging and the Intentionality of Pleasure», *Inquiry* 46 (2): 164-181.

Hanza, K. (2008) «La estética de Kant: El arte en el ámbito de lo público», *Revista de Filosofía* 64: 49-63.

LIBURU-ATALAK:

Autore(ar)en abizena, izen(ar)en lehen letra, (argitaratze-data) «Atalaren izenburua», in: editore(ar)en abizena eta izen(ar)en lehen letra(k), *Liburuaren izenburua letra etzanetan*, argitaratze-hiria: argitaletxea, orrialde zenbakiak.

Ginsborg, H. (2001) «Kant on understanding organisms as natural purposes», in: E. Watkins ed., *Kant and the sciences*, Oxford: Oxford University Press, 231-259 or.

Kuhn, T. (1975) «¿Lógica del descubrimiento o psicología de la investigación?», in: I. Lakatos y A. Musgrave edk., *La crítica y el desarrollo del conocimiento*, Barcelona: Grijalbo, 81-111 or.

INTERNETEN BIDEZKO ITURRIAK :

Baudelaire, C. (1857) *Les fleurs du mal*, Paris: Poulet-Malassis et De Broise,
7.or.,: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k70861t.langES?resetFilAriane=true> (2012ko otsailaren 1ean kontsultatuta).

«Filosofía», Wikipedia,
<http://es.wikipedia.org/wiki/Filosof%C3%ADa>,
(2012ko otsailaren 1ean kontsultatuta).

B2. ADIBIDEAK: eredu tradizionaleko bibliografia

LIBURUAK:

Autore(ar)en abizena, izen(ar)en lehen letra, *Obraren izenburua letra etzanetan*, itzultzailea(k), argitaletxea, argitaratze-hiria, urtea.

Aristoteles, *Acerca del Alma*, itzul. T. Calvo Martínez, Gredos, Madril, 1978.

Sullivan, R. J., *Kant's Moral Theory*, Cambridge University Press, Cambridge (Mass), 1989.

Arsuaga J. L., Martínez I., *La especie elegida: la larga marcha de la evolución humana*, Temas de Hoy, Madril, 1998.

Azurmendi Otamendi J., Bengoetxea Cousillas, J.B., Soto Nolasko I. eta Garmendia Mujika J. ed., *Filosofiako Gida. Filosofian aritzeko oinarria*, UEU Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbao, 2004.

ALDIZKARIETAKO ARTIKULUAK

Autore(ar)en abizena, izen(ar)en lehen letra, «Artikuluaren izenburua komatxo artean», *Aldizkaria letra etanetan*, alea (zenb.), argitaratze-data, orrialdeak.

Ginsborg, H., «Aesthetic Judging and the Intentionality of Pleasure», *Inquiry* 46 (2), 2003, 164-181 or.

Hanza, K., «La estética de Kant: El arte en el ámbito de lo público», *Revista de Filosofía* 64, 2008, 49-63 or.

LIBURU-ATALAK:

Autore(ar)en abizena, izen(ar)en lehen letra, «Atalaren izenburua», editore(ar)en abizena eta izen(ar)en lehen letra(k), *Liburuaren izenburua letra etzanez*, argitaletxea, argitaratze-hiria, urtea, orrialde zenbakiak

Ginsborg, H., «Kant on understanding organisms as natural purposes», E. Watkins ed., *Kant and the sciences*, Oxford University Press, Oxford, 2001, 231-259 or.

Kuhn, T., «¿Lógica del descubrimiento o psicología de la investigación?» I. Lakatos eta A. Musgrave edk, *La crítica y el desarrollo del conocimiento*, Grijalbo, Barcelona, 81-111 or.

INTERNETEN BIDEZKO ITURRIAK

Baudelaire, C., *Les fleurs du mal*, Poulet-Malassis et De Broise ed., Paris, 1857, 7.or.,:
<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k70861t.langES?resetFilAriane=true> (2012ko otsailaren 1ean kontsultatuta).

«Filosofía», Wikipedia,
<http://es.wikipedia.org/wiki/Filosof%C3%ADa>, (2012ko otsailaren 1ean kontsultatuta).

II. ERANSKINA: Klasikoak nola zitatu

Obra baten argitaratze-data erabilgarri ez denean, testu klasikoekin suertatzen den moduan, hiru aukera izan daitezke:

- a) Nazioarteko komunitate zientifikoak onartutako zitatzeke modu estandarra izatea. Hori Antzinako eta Erdi Aroko filosofia-testu gehienek kasuan gertatzen da. Horrelakoetan, erabilitako edizioak ez dira bibliografian aipatzen.
- b) Nazioarteko komunitate zientifikoak onartutako edizio kritiko estandarrak izatea. Hori suertatzen da autore moderno gehienek kasuan. Edizio horiek bibliografian aipatu behar dira.
- c) Ezinbesteko erreferentzia duen edizio kritiko onarturik ez izatea, edizio kritikorik ez dagoelako, edota edizio bat baino gehiago dagoelako.

a) eta b) modalitateak: Beti erabiltzen dira edizio kritikoak eta nazioartean onarturiko klausulak. Ezin da, inolaz ere, itzulpena soilik aipatu. Itzulpena bakarrik erabil daiteke zita luzeak egin behar badira, beti ere aurretik obra eta lekua nazioarteko modu estandarra erabiliz zitatuz.

Adibideak: Antzineko, Erdi Aroko eta Modernitateko autore ezagun batzuen zitak:

-Presokratikoak: salbuespenak salbu, honela zitatzen dira: Diels-ek ezarri eta Kranz-ek editaturiko testuaren bidez, DK (D soilik ere bai), zatiaren zenbakia, eta zenbakiz eta letrez adierazten den leku zehatzaren kodea. Adibidez: **DK 13 B 2. 1-2**, non irakurri behar den Anaximenes (13), benetakotzat harturiko testu-segida (B), zatia (2), lerroak (1 eta 2).

(Anaximenes, zat. 2, DK 13 B 2. 1-2)

(DK 13 B 2. 1-2; itzul. 2010, 23) [testuaren itzulpena aipatzen bada]

-**Platon**: 1578ko Stephanus testuaren edizioaren arabera zitatzen da (hori aipatu gabe): obraren izenburu laburtua latinez (ez bada jadanik aipatu); ondoren, zenbaki eta letra segida bat. Adibidez, **Symp. 209a 5-10**. Honela irakurtzen da: *Symposion*, § 209 (Stephanus-en edizioa), a zutabea, 5-10 lerroak.

(Platon, **Symp. 209a 5-10**)

(Platon, **Symp. 209a 5-10**; itzul. 1923, 12) [testuaren itzulpena aipatzen bada]

Oharra: Stephanus-en edizioa ez da bibliografian aipatu behar.

-**Aristoteles**: 1831ko Bekker-en testuaren arabera zitatzen da (hori aipatu gabe): obraren izenburu laburtua latinez (ez bada jadanik aipatu); ondoren, zenbaki eta letra segida bat. Adibidez, **Meta. 980a 21-25**. Honela irakurtzen da: *Metaphysica*, § 980 (Bekker-en edizioa), a zutabea, 21-15 lerroak.

(Aristoteles, **Meta. 980a 21-25**)

(Aristoteles, **Meta. 980a 21-25**; itzul. 1931) [testuaren itzulpena aipatzen bada]

Oharra: Bekker-en edizioa ez da bibliografian aipatu behar.

Oharra: Egungo edizio eta itzulpen fidagarri guztiek Stephanusen edo Bekkerren edizioen orrialde eta zutabeak aipatzen dituztenez, ez dago arazorik sistema hori erabiltzeko jatorrizkoa kontsultatu gabe.

-**Erdi Aroko autoreak**: Orokorrean, oso ezaguna den edizio baten kasuan izan ezik, izenburua zitatzen da, normalean laburtuta, eta ondoren, pasartea edo zita aurkitzea ahalbidetzen duen obraren egituraren oinarrituriko kode bat. Gehien aipatzen diren autoreek badute nazioartean onarturiko sistema bat. Adibidez, G. de Ockham: **S. Log. I, 14**, honela irakurtzen da: *Summa logica*, I lib., 14. atala.

(G. De Ockham, *S. Log.* I, 14)

(G. De Ockham, *S. Log.* I, 14; itzul. 1910) [testuaren itzulpena aipatzen bada]

-**Descartes**: 1897-1910ean Adam eta Tannery-en edizioaren arabera zitatzen da: obraren izenburu laburtua (ez bada jadanik aipatu), AT, zenbaki erromatar bat, eta zenbait zenbaki arabiar. Adibidez, **Med. AT VII, 9.20-22**. Honela irakurtzen da: *Meditationes*, Adam Tannery edizioaren VII alea, 9 or., 20-22 lerroak.

(Descartes, *Med.* AT VII, 9.20-22)

(Descartes, *Med.* AT VII, 9.20-22; itzul. 1967) [testuaren itzulpena aipatzen bada]

-**Kant**: Berlingo Akademiaren edizio kritikoaren arabera zitatzen da, (AK): izenburu laburtua (edo osoa) eta akronimoa, **AK**, alearen zenbakia erromatarrez eta arabiarrez, orrialdea. Adibidez, **Prol. § 66, AK V, 376**. Honela irakurtzen da: *Prolegomenoak*, 66 pasartea, AK V. alea, 376 or.

(Kant, *Prol.* § 66 AK V, 376)

Hala ere, *Arrazoimen hutsaren kritika* modu laburtuaz zitatzen da beti, AK edizioaren arabera: **KrV**; ondoren, **A** (lehenengo edizioa) edo **B** (bigarren edizioa), eta orrialde zenbakia. Adibidez, **KrV, A 72**. Honela irakurtzen da: *Arrazoimen hutsaren kritika*, A edizioa, 72 or.

(KrV, A 72.)

(KrV, A 72; itzul. 1998, 88) [testuaren itzulpena aipatzen bada]

Oharra: autore grekoen kasuan bezala, egungo Kanten edizio eta itzulpen fidagarri guztiek aipatzen dituzte AK edizioaren orrialde eta zutabeak. Hortaz, ez dago arazorik sistema hori erabiltzeko jatorrizkoa kontsultatu gabe.

c) modalitatea:

Edizio kritikoren bat bilatu behar da. Ez balego, jatorrizko edizioaren urtea aipatu eta, ondoren, erabilitako itzulpena, behar izanez gero. Biak ala biak aipatuko dira bibliografian.

(J. St. Mill 1859)

(J. St. Mill 1859; itzul. 1976) [itzulpena aipatzen bada bakarrik]

Oharra: Autore klasiko baten obra bat baino gehiago erabiliz gero, lanaren hasieran komeni da «Siglak eta zitatzeko moduak» izeneko atal bat eranstea (3-4 lerrokoa), erabili diren siglen zerrenda bat emanaz. Hor aipatuko dira DK, AT, AK moduko akronimoen bidezko laburdurak, **inola ere ez** autoreen arabera bibliografian.



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

Filosofia Gradua
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (HEFA)
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU